

txintxarri

Festa gogoa asebate dute

Hiru urtetako itxaronaldia erraz ahaztu dute Sasoetako auzotarrek, eta gogotsu heldu berreskuratutako ospakizunari / 5

TXINTXARRI

Motibazio kolpe bat sentitzeko

Hiru fase izango ditu laster hasiko den Euskararen 10. Maratoialdiak. Sentitu izango da lehena, hilaren 22an eta 23an / 8-9

'Kuikui' ikuskizunaren gozarazi dituzte herritarrek, Pirritx, Porrotx eta Marimototsek / 2

Hilaren 8an Donostiara joateko deia luzatzeaz gain, gogoeta egin dute Sareko kideek iraileko Azken Ostiralean / 3

Aste Kulturala ospatuko du Semblante Andaluz elkarteak Okendo plazan, hilaren 7tik 12ra / 4

Areto futboleko taldeek denboraldia hasi dute; Eguzki ISU Leihoak-ek ezin izan du Ttakun AFE garaitu / 11

Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoiak Aterpeako dendetan erosteko txartelak banatuko ditu sari modura / 12

Aldizkari hau eta kartel bat jasoko dituzu postontzian, biak hartu!



sentitu

2 MÓ 229€

**BETAURREKO PROGRESIBO
ERREFLEXUEN AURKAKO
LENTEEKIN**



R.P.S. 91/20

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS
kalitatea - konfiantza - diseinua

www.multioplicas.com   



Jalgune eta Ttakun Kultur Elkarteari omenaldi txiki bat egin zieten pailazoez emanaldi amaieran. JALGUNE ELKARTEA

Txori hegalaria bilakatu dira, sudurgorri artean

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoez 'Kuikui' ikuskuzina ekarri dute herrira. Haur eta gurasoz bete da Manuel Lekuona Kultur Etxea, eta abagunea baliatu dute Jalgune eta Ttakun Kultur Elkarteari aintzatespen txiki bat egiteko; txori habi bana oparitu diete

Txintxarri

Auditorioko eserleku ia guztiak bete zituzten familiek sudurgorrien lan berriaren ikuskizunaz gozatzeko. Abestu, dantzatu, barre egin... horietarako hamaika aukera izan zituzten ordubete luzean. Alaitasuna nagusi izan arren, amalurra zaintzeko garrantziaz ere ohartarazi zituzten txikiak. Itsasoko kutsadura, migranteek aurre egin behar dituzten arriskuak, bioaniztasuna

babesteko eta aberasteko txorrotxio bakoitzaren beharra...

Saioen amaieran herrietan euskararen alde dabilzan eragile, elkarte eta bestelakoak omendu ohi dituzte. Herrian, habi kutxa bana eman zieten Jalgunerari eta Ttakun Kultur Elkarteari. Pili Bermejok eta Inma Muñoak jaso zituzten, hurrenez hurren. Eskertzan Muñoak adierazi zuen "oso pozik" dagoela Ttakunen izenean habia hartzeagatik eta "hau txori txikiz beteta dagoela".

Halaber, Euskararen 10. Maratoian, Euskaraldian eta tartean egingo dituzten tailerretan parte hartzera animatu zituen. "Udazkena bete-betea, bero-beroa, dator eta elkar ikustea espero dut. Animatu!". Bermejok, berriz, eskerrak eman zizkien sudurgorriei "zuen baloreak gurekin partekatzeagatik". Ondoren, elkarrekin dantzatu zuten *Pausoka-pausoka*, *Maite zaitut* eta *Txoria nintzela* abestiak, Euskararen 10. Maratoian parte hartzeko deiarekin agurtu ziren.



Amalurra zaintzeko garrantziaz ere ohartarazi zituzten herriko gaztetxoak. TXINTXARRI



Ikuskizun animatua eskaini zieten ikusleei; gogotik egin zuten irri eta dantza. TXINTXARRI

Adinekoen Omenaldi Asteaz gozaten jarraituko dute

Hilaren 1etik ari dira jarduera ezberdinetan parte hartzen. Astebururako ere iragarri dituzte beste hainbat

Txintxarri

Adineko pertsonak, ospakizun betean jarraitzen dute. Iragan larunbat arratsaldean, hilaren 1ean egindako bandera igoerarekin eman zioten hasiera Adinekoen Omenaldi Asteari. Elkarteko ordezkariekin batera, udalekoak ere bertan izan ziren. Udal Musika Eskolako ikasle Judit Tiradosek agurra dantzatu zuen, eta Hugo Amilek trikitixa jo.

Asteburuari begira ere iragarri dituzte ekimen gehiago. Larunbatean, esaterako, urrezko ezteien ospakizuna egingo dute. Bidenabar, meza deitu dute Ama Brigitarren komentuan. Hori amaitu eta gero, Biyak Bat egoitzara joango dira, eta, bertan, oroigarriak jasoko dituzte urrezko ezteiak bete dituzten hamabost bikotek.

Hurrengo egunean, hilaren 9an ere izango dute non gozatu.

11:30ean meza egingo dute Arantzazuko Ama parrokiaren (Zumaburu auzokoa), eta hori amaitu ostean, kalejiran joango dira kultur etxeraino. Bertan, Biyak Bat koruak kontzertua eskainiko du (13:15ean). Indarrak berreskuratu eta arratsaldeko ekimenei hasiera eman aurretik, behar bezela beteko dituzte sabelak; bazkaria egingo dute Michelingo pilotalekuan. Bazkalosteko logurak arindu, eta ospakizun asteari amaiera emateko, dantza saioa egingo dute. Ibai Berriak musika taldea arduratuko da arratsaldea girotzeaz; gorputzak astinduz agurtuko dute aurtengo ospakizun astea.



TXINTXARRI

Odolaren Mintzoa, Jalgin

Azken asteetako jardunari eutsiz, zuzeneko musika izan zen asteburuan ere Jalgin. Hilaren 1ean Odolaren Mintzoa laukote usurbildarrak pop rock doinuaz bete zuen kafe antzokia eta herritar ugari erakarri zuen. 2008an hasi zuten beren ibilbidea eta hiru disko kaleratu dituzte ordutik: *Odolaren Mintzoa*, *Etsipenaren aurka* eta *Hauskor*. Lan horietako kantekin osatu zuen bere emanaldiaren erreperitorioa.



Elkarretaratzearen bukaeran, talde argazkia egin zuten salbuespen politikaren amaiera eskatzeko. TXINTXARRI

Memoria ardatz izan du iraileko Azken Ostiralak

Urte hasieran abiarazitako dinamikari eutsiz, mobilizazioa egiteaz gain, gogoetarako baliatu du hitzordua Lasarte-Oriako Sarek. Halaber, larunbatean Donostian aurrera eramango dituzten jardueretan parte hartzeko deia egin diete lasarteoriatarrei

Txintxarri

Irailak ikasturte berriaren hasiera dakar eta ohiko ekimenen itzulera. Hala izan da Azken Ostiralaren kasuan. Irailaren 30ean 50 bat herritar elkartu zen Elizatzen Lasarte-Oriako Sarek deitutako ekintzan parte hartzeko. Handik, Okendora joan ziren, eta gai bati buruzko gogoeta partekatu zuten.

Irailean memoria izan da, besteak beste, Mikel Kastresana herritarraren hilketaren urteurrena izan baita joan den hilabetean; eta Pablo Barriok hilerrian egindako omenaldian entzundako esaldi batekin hasi zuen irakurketa: "Ahaztea galtzea da". Berezko memoria sortzeko ezintasuna nabarmendu zuen.

"Hitzez eta ekintzez debekatzen zaigu herri honetan gertatutakoaren gure bertsioa ematea eta kontaketa bakarraren inposizioaren aurrean, sufrimendu guztien egia, aitortza eta errespetutik" herriak kontatutako Historia ezagutzeko "eskubidea eta beharra" aldarrikatu zituen. Zehaztu zuenez, hori jaso eta denen eskura jartzeko lana "guk egin behar dugu, Euskal Herri libre, justu eta duin bat nahi badugu".

Donostiara joateko deia

Plazarantz abiatu aurretik, Ixiar Arteagak Etxerategi eta Sarek adostutako idatziaren berri eman zien. "Herritar, eragile, alderdi

eta sindikatu askoren lanari esker" urrunketarekin amaitu badute ere, salbuespen neurriak mantentzen dituztela eta presoak etxera ekartzeko "zati bat egiteke" dagoela gogoratu zuen.

Hiru milioi kilometro ibiltzeko dinamika 2019an abiatu zuen Sarek, eta hilaren 8an amaituko du Donostian aurrera eramango duten Etxera Bidea Gertu ekintza sortarekin. Bulebarrean elkartuko dira 11:00etan eta Pio XII plazan mobilizazioa egingo dute, 12:00etan. Handik Illunbera joango dira. Bertan, 15:30ean ekitaldia egingo dute eta 17:00etan hasiko dute jaialdia. Arteagak parte hartzera deitu zituen lasarteoriatarrak.

UDAL HAUTESKUNDEAK 2023



IDO PHOTOGRAPHY

Esti Garmendia Arrieta, alkategai

Lasarte-Oriako EH Bilduko kideek legealdi honetako azken ikasturteari ekin diote. Hasiera irudikatzen, herri batzarra egin berri dute Antonio Mercero gunean, eta, besteak beste, 2023ko maiatzeko udal hauteskundeak hizpide izan dituzte. "Gogotsu eta herriarekiko konprometituta" ari dira bozak prestatzen, eta entzuketara prozesu bat aurrera eramanez, jakinarazi dute Esti Garmendia Arrieta proposatu dutela zerrendaburu.

"Hauteskunde batzordea eratu da eta hurrengo urratsa herriko bilkideek alkategaia berrestea izango da", azaldu dute. Bidenabar, zehaztu dute hautagaien zerrenda osatzeko lanetan murgilduta daudela, eta "herriko eragileei zein norbanakoei erantzungo dien programa" lantzen ari direla.



Otorduetako txartelen salmenta:

Astelehena urriak 10
Ttakuneko bulegoan 16.00-18.00

Asteartetik aurrera Ttakuneko bulegoan
09:00etatik 13:00etara (astelehena ezik) eta 16:00etatik 18:00etara (ostirala ezik).
eta Jalzi Kafe Antzokian (asteartetik aurrera)

Okendo plaza, andaluziar kulturaren bilgune

Semblante Andaluz elkarteak Aste Kulturala ospatuko du hilaren 7tik 12ra arte, Okendon. Pandemia aurreko formatua berreskuratu eta hainbat jardueraz osatutako egitaraua prestatu dute kideek, Lasarte-Oriako Udalaren laguntzarekin. Parte hartzera animatu dituzte herritarrak

Txintxarri

Okendo plazan jarri duten karpa erraldoia zertarako den galdetu badiozu zure buruari, honatx erantzuna: Semblante Andaluz elkarteak gaurtik aurrera (hilak 7) ospatuko duen Aste Kulturalako jarduerak egingo dira bertan, hilaren 12ra arte, asteazkenarekin. Pandemiak gure bizitza eta hori ospatzeko modua hankaz gora jarri aurreko formatua berreskuratuko du aurten eta ez dira faltako dantzaldi, kontzertu, jaki, edari, txapelketa, jolas eta bestelakoak. Lasarte-Oriako Udalaren laguntzarekin prestatu du egitaraua Semblante Andaluzek; bertako kideek herritarrak animatu dituzte Okendora joan eta ekimenetan parte hartzera.

Esan bezala, gaur hasiko da Aste Kulturala, 18:00etan. Ordu horretan karpa ireki eta andaluziar musika jarriko dute, motorrak berotzeko. Bi ordu geroago, ekitaldi sinbolikoa egingo dute: ohorezko ardoarekin topa, gonbidatu eta udal ordezkari ugarirekin batera. Lasarte-Oriako



Dantza emanaldiak ez dira faltako. TXINTXARRI

zenbait gaztek osatutako Louh taldeak kontzertua emango du 20:30ean, eta amaitutakoan, 21:30ean, dantzaldi herrikoia izango da.

Bihar, hilak 8, larunbatarekin, Tabita y son flamenco taldearen kontzertua izango da egitarauko

jarduera nabarmenena. 19:00etan hasiko da. Horren aurretik, bote nahiz toka txapelketak (12:00etan) eta haurrentzako jolasak (17:00etan) aurrera eramango dituzte.

Lasarte-Oriaren bilakaera hizpide

Aste Kulturalan ez da dena jaia, dantza eta gastronomia izango. Iganderako solasaldi bat antolatu dute, Lasarte-Oriako historiaren bilakaerari buruz, hiru aditurekin: Julian Sagardia, Jesus Mari Egizabal eta Txema Valles. 12:00etan hasiko da hitzaldia.

Datorren asteke astelehenean atsedean hartuko dute, astearte arratsaldean eta asteazkenean indar betean bukatzeko ospakizuna. Emanaldi zenbait azpimarratzekotan, hauek: Aurelio Gallardo musikariaren kontzertua, asteartean, 22:00etan, eta Semblante Rociero koruaren saioa, hurrengo egunean, 19:00etan.

Aste Kulturalako egitarau osoa aldizkari honetan bertan kontsulta dezakezue, *Agenda* atalean, 15. orrian.



NEURE KABUZ
LIERNI REKONDO

Sendatzea

Urriaren 10ean Osasun Mentalaren Nazioarteko Eguna ospatzen da eta buruko gaixotasunen problematikaren inguruan kontzientzia sortzea du helburu.

Osasun mentala laidoztatua dago oraindik ere. Geroz eta gehiago entzuten dugun kontzeptua da komunikabideetan, sare sozialetan, jendearen ahotan... Baina, esango nuke oraindik ez zaiola eman behar den lekua gizartean. Duela hamar urte baina askoz ohikoagoa da terapiara joatea, edo, behintzat, publikoki naturaltasun osoz kontatzea. Terapia eta buruko osasuna zaintzeari dagozkion baliabideak ordea, ez daude oraindik edonoren esku. Osasun zerbitzu publikoak ez du kalitatezko zerbitzurik eskaintzen, eta kasurik larrienenan soilik bideratzen dira kasuak osasun mentaleko sailera. Urtero-urtero medikuarenean azterketa bat egitea gomendatzen dute adituek, baina ez da ezer komentatzen prebentzio gisa terapiara joateaz. Ni ere terapiara joaten naiz eta onartu behar dut pribilegiatua sentitzen naizela. Zorteduna sentitzen naiz joan ahal izateko baliabideak dauzkadalako batetik, eta bizitzen ari naizen prozesu aberasgarri honengatik bestetik.

Lehen aipatu dudana bezala, geroz eta ohikoagoa da osasun mentalaz hitz egitea, baina, horrek ere zenbait arrisku ekarri ditu. Naturalizatzearikin batera, geroz eta espazio gehiagotan hitz egin da gaiaren inguruan eta, ondorioz, esparru batzuetan gaia arinkeriaz tratatzen da, horrek ekar ditzakeen ondorioekin. Saltzen digute eguzkiarekin batera esnatzearikin, azala zaintzearikin, hausnartzearikin, yoga egitearekin, idaztearekin, irakurtzearikin, eta ondoren lanera joatearekin, gimnasia joatearekin, sare sozialetan denbora galtzearikin, osasuntsu afaltzearikin, oheratu aurretik irakurtzearikin dena konpontzen dela. Alegia, gizarteak eskatzen duena betez gero, gure osasun mentala zainduko dugula.

Garrantzitsua da baieztapen hauetan ez erortzea. Ulertzea YouTube edo Tik Token ikusten dugun hori ez dela erreala. Gerta liteke norbaitentzat mesedegarria izatea horrelako errutinak, baina ez liratezke guztiontzako helburu bihurtu behar, besteekin prozesuak zalantzan jarri eta zurearekin alderatzeko beste molde bat. Norberaren Osasun Mentala zaindu eta gure burua indartzea ez da *#Healthylife* hashtag-a mantra bihurtzea. Batzutan, ia gehienetan, laguntza profesionala behar izaten da, esfortzua eskatzen du, eta batez ere prozesu zaila da.

Nire kasuan behintzat, lan handia eman dit onartzeak sendatzea ez dela lineala, eta bideak badituela bere argi-ilunak. Helburuak betetzea bidearen zati bat dela, baina badagoela eskaparatek at geratzen den beste alde hori. Sendatzea lur jota zaudenean zure buruari eskutik heldu eta bidean laguntzea da, onartzea beti ez gaudela berdin eta ezin dugula kontrolatu. Zure buruari laguntza eskatzeko aukera ematea da. Ulertzea sumindura baretzen doan arren, orbainak ez direla guztiz ezabatzen. Orbain horiek zaindu eta goxatu egin behar direla eta noizean behin, itxi ez den zauriaren zorna bihurtuko direla berriz ere behin eta berriro.

Gure osasun mentala zaintzea bide gogorra da, ez da lineala, baina ez dezagun ahaztu norberaren burua zaintzea dela norberaren buruarengatik egin daitekeen onena. Beraz, zaindu gaitezen eta borroka dezagun osasun mentala zaintzeko baliabide publikoen alde.



TXINTXARRI

Rallyko zirkuitu bilakatu da herria beste behin

San Sebastian Circuit Spiritek antolatutako auto klasiko eta kirol autoen V. nazioarteko rallyak Lasarte-Oriako geldialdia egin zuen hilaren 1ean. Aurtengo 120 bat partaideek motor hotsez bete zituzten herriko kaleak. Donostiatik Lasarte-Oriara 10:45 iritsi behar ziren, baina hamar bat minutuko atzerapenarekin heldu ziren lehen auto bereziak Michelin lantegira. Kanpoan, ohi bezala, zaletuak eta kuxuxeroak gehitzen joan ziren errepide ertzetan. Ibilgailuek ohiko ibilbidea egin zuten herrian barrena: Geltokia kalea, Hipodromo etorbidea eta Kale Nagusia igarota Zirkuituko Ibilbidetik aurrera egin zuten.

Sasoetako Jaiak

Hiru urtetan pilatutako festa gogoa asebate dute

Hilabete luzez itxaron behar izan dute Sasoetako bizilagunek auzoko festak berriro bizi ahal izateko. Zain egondako denbora, ordea, erraz ahaztu zuten asteburuan eta gogotsu heldu zioten berreskuratutako aukerari. Horretarako, Sasoeta Sasoian elkarteko kideek egitarau zabala prestatu zuten giro onean gozatzeko. Suziri hots ugari entzun ziren hiru egunetan, lehena, Lourdes Gundinek eta Oihana Izpura irakurritako pregoiaren eta Bagri liburu dendako Antonio Barrenetxea eta Conchi Grijalba senar-emazteen omenaldi hunkigarriaren ondoren entzun zen.

Jaiak piztearekin batera, euria hasi bazuen ere, arratsalderako prestatutako jarduera guztiei eutsi zieten: kirol jolasak, txikidiskoa, txokolate jana, kontzertuak... Hasiera besterik ez zen izan, larunbatean, goizetik gauera, ekimenen bat izan baitzen auzoan. Haurrak izan ziren goizeko protagonista nagusiak, eskulan, jolas, buruhandi eta bestelakoekin. Helduek, berriz, danborradan izan zuten beraien hitzordu nagusia.

Janari eta edari gabeko ospakizunik ez da. Hala, herri bazkaria eta patata tortilla lehiaketak arrakastatsua egin zituzten. Aurkeztutako 22 tortillen epaileak Aitona kafetegiko Borja Cerda, Alcar Leihoak-eko Ana Laureano eta Extremadura Etxeko Angel Barrera izan ziren; sarituak, berriz, Patricia Gomez, Oier eta Axel, eta Borja Quintana. Jarduera zerrenda osatuta, azken traka eta hiru suziriren eztandaekin hurrengo urtera arte esan zieten festei.



Jaiak iraun duten hiru egunetan haurrek jarduera ugaritan parte hartzeko aukera izan dute, eta gogotsu aritu dira. TXINTXARRI



Conchi Grijalba eta Antonio Barrenetxeak hunkituta jaso zuten auzokideen aitortza. TXINTXARRI



Patata tortillako lehiaketako hiru onenei garaikur bana eman zieten. TXINTXARRI



Haurrek eta helduek aukera izan zuten danbor eta barrilekin burrunba egiteko. TXINTXARRI




Engainagarriak

Bederatzi zati hauetatik bost engainagarriak dira, hau da, ez dira zehatz-zehatzak edo ez datoz bat irudi nagusiarekin.

GAU BELTZA

Apaindu eta margotu.



Labirintoa

Gure Maripurtzil eta Pelloziri santa eskean doaz, baina aukeran, nahiago dute gutizia gozoa jaso, gartzaina baino. Zein ote da goxokietaraino eramango dituen bidea? Aurki ezazu.

HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA

 A	 B	 C	 D	 E	 F	 G
 H	 I	 J	 K	 L	 M	 N
 O	 P	 Q	 R	 S	 T	 U
 W	 X	 Z	 .	 ,	 !	 ?

¡Spilutxo, ¡Spilutxo...

ET, ET, ET, HORI GABONETAKO ABESTIA DA, ETA HAU GAU BELTZA DA!

GAZTAINAK ERRE ARTEAN,
GAZTAINAK ERRE ARTEAN,
TXIPLI-TXAPLA PUN...


ETA GOXOKIRIK
EZ AL DA
BATERE?

KAKA!
EZ DUT
PUTZIK
IKUSTEN



Gau Beltzak duen magiaren eragina izango da agian, baina gure laguntxoak ez dira ongi ispilatzen. Aurki itzazu aldeak. Bederatzi dira guztira.

Zer esaten ari ote da neskatoa? Jarri marrazkitxo bakoitzaren azpian dagokion hizkia alboko hizki-marrazki alfabetoari begiratu, eta berehala jakingo duzu.



Zer ote?

Hildakoak gogoratzeko pizten den gauza honek zer izen du? Jarri marrazkitxo bakoitzari dagokion izena, hizkiz hizki, alboko lauki zurietan. Gero, lauki gorrietan gelditu diren letrak irakurri, goitik behera.

	A	B		
	G			R
			Z	
	H			X
	H	Z	D	
	K			L
	K			
			T	Z
	H		R	R
			T	
			T	
				A

Mezu gordea



sentitu



prestatu...

eta ekin!

urriaren 22an eta 23an

EUSKARAREN

10. MARATOIOIA ETORRI ETA SENTITU!

Tik-tak, tik-tak... Gero eta gutxiago falta da emozio, gorputz eta mihiak dantzan jarri eta gure bihotzen erritmoa azkartzeko: taupa-taupa, taupa-taupa... Badator Euskararen 10. Maratoialdia! Bai, ongi irakurri duzu, Maratoialdia izango da aurtengoa, Maratoia eta Euskaraldia batuko dituelako. Funtsean, euskaldunak ahalduntzeko beste urrats bat izango da, eta ez nolana hiko. 42 eguneko bidea trazatu dute egitasmoaren antolatzaileek, Lasarte-Oriako Udalak eta Ttakun Kultur Elkarteak: Sentitu izango da lehena, hilaren 22an eta 23an, euskaraz gehiago hitz egiteko motibazio kolpea jasotzeko; bigarrena, Prestatu, hilaren 24tik azaroaren 17ra, hizkuntza asertibitatean kolektiboki entrenatzeko; eta hirugarrena, Eta ekin, azaroaren 18tik abenduaren 2ra, hitz egiteko garaia, Euskal Herri osoan egingo den Euskaraldian. Ezin ahaztu ariketa sozial horren ernamuina izan zela 2016ko Euskararen 9. Maratoia, "armairutik irten" ginenekoa, Baietz 40 egun euskaraz eta ahobizi zein belarriprest rolak sortuta. Sei urte geroago, beste pauso bat emateko prest lasarteoriatarak. Beno, hobe esanda, hiru: *Sentitu, prestatu...eta ekin!*

Euskaraz gehiago hitz egiteko motibazio kolpea jasoko dugu Sentitu fasean, beti ezagutu izan dugun Maratoian, hilaren 22an eta 23an. Horretarako gogoia pizteko helburuz, izango dira momentu solemne, hunkigarri, barregarri eta dibertigarriak! Laster izango duzue antolatzaileek mimoz prestatu duten egitarauaren berri. Adi egon!





Hona hemen zure etxeko balkoi edo leihoak dotore-dotore jartzeko proposamena: zintzilika ezazu aldizkari honekin batera jaso duzun kartela, eta lagundu herria girotzen iristear den Sentitu faserako!



LANTALDEETAN LAGUNTZEKO JENDEA BEHAR DUGU! ANIMATU!

Gerturatu zure sakelako telefonoa eta izena eman!



Buruntzaldeko ibilbideen eguna aurkeztu dute

Hilaren 16a, 08:00etatik 14:00etara, eskualdeko bidezidorretan barrena ibiltzeko goiza izango da. Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil artean bost ibilbide daude aukeran; Buruntzaldeari itzulita ere eman ahalko diote mendiko zaletuek

Txintxarri

Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil artean dagoen landa-ingurune naturala ezagutzeko eta lehiatzeko ez den jarduerara fisikoa egiteko aukera izango da urriaren 16an, igandearekin, 08:00etatik 14:00etara; Buruntzaldeko XIV. Ibilbideen Eguna antolatu dute.

Ibilbideen egunean eskualdean dauden bost joan-etorri (ikus ondoko koadroa) egin ahalko dituzte herritarrek; horiek herri bakoitzean dauden paneletan zehaztuta daude. Sakelako telefonoan Navi Ruta aplikazioaren bitartez ere eskura izan ditzakete ekimenean parte hartzen dutenak. Aplikazioa aipatu paneletan dagoen QR kodea eskaneatuz ezar daiteke.

Horrez gain, Ibilbideen egunean Buruntzaldeari itzulita eman ahalko diote mendizaleek. Ostadar SKTko Mendi sailaren eskutik 27 kilometroko ibilbidea egingo da. Ibilaldi hau 08:00etan aterako da San Pedro eliza ondotik.

Ohi bezala, herri bakoitzean kontrol puntu bat ezarriko da, Usurbilen izan ezik. Bertan bi izango



Buruntzaldeko udaletako ordezkariak aurkezpenean. TXINTXARRI

dira, Santuenean eta Aginagan. Horieta informazioa, txartela edo zigiluak jaso eta mokadutxo bat eta edatekoa ere izango dute partaideek. Oparirik ere izango da, eskuoihal bat. Bi ibilbide edo Andoain - Lasarte-Oria / Andoain - Usurbil ibilbideak egiten duten herritarrek jasoko dute.

Eta etxera itzultzeko autobus zerbitzua martxan izango da, 12:00etatik 14:40era (Urnieta). Aginagatik orduro atera eta herri ezberdinetatik igaroko da: Usurbil, Lasarte-Oria, Andoain eta Urnieta.

Andoain - Lasarte-Oria

7,9 km. Oinez egitekoa

Andoain - Urnieta

4,8 km. Oinez edo bizikletaz egitekoa

Andoain - Usurbil

14,9 km. Oinez egitekoa

Lasarte-Oria - Urnieta

3,9 km. Oinez egitekoa

Lasarte-Oria - Usurbil - Aginaga

9 km. Oinez edo bizikletaz egitekoa



Ostadar Ipar Martxako kideek Urribarri Ganboara egin dute txangoa. OSTADAR IPAR MARTXA

Ostadar Ipar Martxako kideak hitzorduz hitzordu ari dira

Irailean eta urrian ekimen ugarian parte hartzen ari da ipar martxa taldea, Lasarte-Oria Bai! krosa barne

Txintxarri

Ostadar Ipar Martxa taldeak urteko lehen irteera egin zuen hilaren 2an. Arabara egin zuten txangoa kideek, Urribarri Ganboko urtegiara. Eta herriko taldeko lagunez gain, Arrasateko Retinosis Gipuzkoa Begisare elkarte taldeko bi pertsona ere batu ziren egun pasa egitera. 13 kilometroko ibilbide zirkularra egin zuten bertan, Garaio-Azua-Garaio. Landako hondartzan bazkaldu eta arratsaldean Leintza Gatzagako Gatz museoa bisitatu zuten.

Kirol taldeak irailean eman zien hasiera entrenamendu saioei -asteazkenetan, 19:00etan- eta ekimenez betetako ikasturtea izango du aurretik.

Hil horren 22an hasi zituzten ekintzak; Mugikortasun Astearen parte hartu zuten. Herritarrei kirol horren onurak azaltzeko gain, NW Blind gailuarekin ikusmen murriztua duten pertsonen ematen dioten aukera ere erakutsi zuten.

Hilaren 16an, Buruntzaldeko Ibilbideen egunarekin bat egingo dute ipar martxako kideek eta Lasarte-Oria eta Aginaga arteko bidea egingo dute.

Euskararen 10. Maratoian ere parte hartuko dute, eta hilabete amaieran, Gironako ipar martxa taldea jaso du. Asteburu pasa ederra egingo dute eta 25. Lasarte-Oria Bai! krosoan lehiatuko dira.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

Leintz Arizmendi KE - Ostadar SKT
Igandea, 11:30. Mojategi, Arrasaten.

GOINGOEN MAILA

Ostadar SKT - Allerru KE
Larunbata, 17:30. Michelin kirol gunean.

ERREGIONAL 1. MAILA

Texas Lasartearra CF - Ikasberri KE B
Larunbata, 15:30. Michelin kirol gunean.

Urnieta KE - Ostadar SKT
Larunbata, 16:00. Urnietan.

OHOREZKO JUBENIL MAILA

Vasconia CD - Ostadar SKT
Larunbata, 18:00. Zubieta 5, Donostian.

JUBENIL 1. MAILA

Ostadar SKT C - Danena KE B
Igandea, 11:30. Michelin kirol gunean.

Orioko FT B - Texas Lasartearra CF
Larunbata, 18:30. Mendibeltz, Orion.

Amara Berri KE B - Ostadar SKT B
Igandea, 14:00. Martutene, Donostian.

OHOREZKO KADETE MAILA

Ostadar SKT - Astigarragako Mundarro FKE

Igandea, 09:45. Michelin kirol gunean.

KADETE 1. MAILA

Ostadar SKT B - Kostikas KE E

Larunbata, 09:45. Michelin kirol gunean.

Texas Lasartearra CF - Urnieta KE B

Larunbata, 11:30. Michelin kirol gunean.

Martutene KE C - Ostadar SKT C

Larunbata, 10:30. Martutene, Donostian.

OHOREZKO INFANTIL MAILA

Tolosa CF - Ostadar SKT

Larunbata, 09:00. Usabal, Tolosa.

INFANTIL TXIKI, AURRETIKO FASEA

Ostadar SKT - Astigarragako

Mundarro FKE
Larunbata, 13:15. Michelin kirol gunean.

ARETO-FUTBOLA

1. MAILA

Eguzki Arkupe Rehabilitaciones -

Ingou Coinbroker Aloña
Ostirala, 20:50. Maialen Chourraut kirol.

2. MAILA

Laskorain KE - Eguzki ISU Leihoak

Larunbata, 16:00. Usabal kirol., Tolosan.

GAZTEEN MAILA

Eguzki Bodegas Ayesa - Goierri KE

Larunbata, 10:00. Aldiri kirol., Urretxun.

SASKIBALOI

SENIOR 1. MAILA

Ostadar SKT - Goizper Group BKE

Larunbata, 16:00. Maialen Chourraut kirol.

SENIOR 3. MAILA

Ostadar SKT - Internacional CD

Larunbata, 14:00. Maialen Chourraut kirol.

JUNIOR ERRENDIMENDU ZILARRA

Ati. San Sebastian Anie - Ostadar SKT

Larunbata, 12:30. Aiete kirol., Donostian.

JUNIOR PARTAIDETZA

Inar Optika ISB - Ostadar SKT

Larunbata, 09:30. Azkoitiako kiroldegian.

KADETE ERRENDIMENDU ZILARRA

Ostadar SKT - Ordizia

Larunbata, 09:45. Maialen Chourraut kirol.

KADETE PARTAIDETZA

Bera Bera Ulla - Ostadar SKT

Igandea, 10:00. Paco Yoldi kir., Donostian.

INFANTIL ERRENDIMENDU URREA

Ostadar SKT - Latz Taberna ISB

Larunbata, 11:30. Maialen Chourraut kirol.

INFANTIL ERRENDIMENDU ZILARRA

Ostadar SKT Urdina - Txogibxu Askatuak

Larunbata, 11:30. Maialen Chourraut kirol.

INFANTIL PARTAIDETZA

Easo Basket Urgull - Ostadar SKT Beltza

Larunbata, 09:00. San Ignacio De Loyola ikastola, Donostian.

PILOTA

ESKUZ BINAKA, JUBENIL 1. MAILA

Ataun - Intza

Ostirala, 18:15. Auzaeta pil., Ataunen.

ESKUZ BINAKA, JUBENIL 2. MAILA

Intza - Hernani

Larunbata, 16:15. Loidibarren pilotalekua.

BOLEIBOLA

EUSKAL MAILA, SENIOR

Ostadar SKT - CV Sestao

Igandea, 11:00. Maialen Chourraut kirol.

ERRUGBIA

EUSKAL LIGA, OHOREZKO B MAILA

Ekin Eraikuntzak Arratiko Zekorrak RT

- **Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak KE**

Larunbata, 17:00. San Txisme, Igorre, Bizkaian.

18 URTEZ AZPIKOA

Urbealde Txingudi RC - Gesalaga

Okelan Zarautz Beltzak KE

Larunbata, 11:30. Plaiaundi, Irunen.

16 URTEZ AZPIKOA

Urbealde RKE - Gesalaga Okelan

Zarautz Beltzak KE

Larunbata, 12:30. Ardanza, Plentzia, Bizkaian.

14 URTEZ AZPIKOA

Zarautz Beltzak KE taldeak seven

modalitateko topaketa izango du.

Larunbata, 11:00. Lekaroz, Nafarroan.

AUTOMOBILISMOA

URBASAKO IGOERA

Herriko gidariak Urbasako igoeran

lehiatuko dira.

Larunbata, 13:00. Olazti, Nafarroan.

Eguzki ISU Leihoak-ek, ezin garaipena erdietsi

Areto Futboleko Gipuzkoako 2. Mailako lehen jardunaldian Ttakun AFE izan du aurrez aurre Eguzki AFko bigarren taldeak. Partida gogorrari aurre egin behar izan diote herritarrek. 1. mailan ere, zortetik ez du izan Eguzki Arkupe Rehabilitaciones-ek

Txintzarri

Eguzki Areto Futbola elkarteko senior taldeek ligari hasiera eman diote. Horri esker, Maialen Chourraut kiroldegian Gipuzkoako 2. Mailako neurketa ikusi ahal izan zuten zaletuek. Lasarte-Oriako Eguzki ISU Leihoak-ek Ttakun AFE azkoitiarraren aurka lehiatu zuten.

Partida gogorra espero zuten herriko jokalariek eta horrela izan zen. Hasieratik Eguzki ISU Leihoak atzean sendo jokatu zuten. Aukera ugari ere sortu zituen kontraerasoetan. Baloiak ez zuten sarean sartu nahi, ordea.

Atsedendira hamar minutu falta zirela, aurkariak etxeko taldearen atea urratzea lortu zuten. Nahiz eta Jon Arozenak zuzentzen dituen jokalariek berdinketa bilatu, ez zuten saririk izan.

Bigarren zatia ere berdintsua izan zen. Aukerak sortu zituzten etxeko jokalariek. Alabaina, ate aurrean ez zuten zortetik izan. Azpeitiarrek, berriz, ederki baliatu zituzten euren saiakerak eta beste bitan egin zuten gola.

Ondorioz, aldea murrizteko asmoarekin, Jon Arozenak atezain jokalaria atera zuten. Tamalez, markagailua ez zen mugitu.



Eguzki ISU Leihoak-eko jokalaria, pase bat egiten. TXINTXARRI

Eguzki ISU Leihoakeko prestatzailea pozarren dago taldeak lehen neurketa horretan izandako jarrerarekin: "Beti dira zailak lehen partidak; beraz, oso harro gaude taldeak lehen neurketan erakutsitako intentsitate eta gogoekin".

Jokalar berriak

Arozenak jokalar berri gazte eta berri ugari dituela nabarmendu du. Horren ondorioz, denboraldi hasieran helburu garrantzitsu bat lortzeko lan egingo duela adierazi du: "Taldek gazte eta jokalar berriei erakutsi eta

hobetzen laguntzea dugu lehen xedea".

Ligari dagokionez, 2021-2022 denboraldia hobetzea espero du Arozenak; azken postuetan izan zen Eguzki ISU Leihoak.

Gainerako taldeak

Eguzki Arkupe Rehabilitaciones taldeak ere porrota jasan zuen Andoainen. 1. mailako jokalariek Euskaldunaren aurka neurtu zituzten indarrak; 1-0 galdu zuten.

Gazte Mailako Eguzki Bodegas Ayesak, berriz, hilaren 8an emango dio hasiera denboraldiari Urretxuko Aldiri kiroldegian.

Ohorezko Infantil Mailako taldea nagusi izan da Urnietaren aurka

Talde urdin-beltzak 5-2 irabazi du neurketa. Bi partida irabazita ederki hasi du denboraldia gaztetxoek taldeak

Txintzarri

Ostadar SKTko ohorezko infantilak ongi hasi du Liga; bi jardunaldi jokatu eta bietan garaipena erdietsi du. Hilaren lehen egunean Michelingo kirol gunean, zaletuen aurrean lehiatu zen Jagoba Mendizabalek zuzentzen duen taldea; Urnietaren aurkako neurketa 5-2 amaitu zen.

Lehen minutuetan partida irekia zirudien; bi taldeek aukera ugari sortu zituzten. Aurkaria ezaguna zuen etxeko taldeak, ordea eta pixkanaka ederki moldatu ziren urdin-beltzak jokoaz jabetu eta Urnietaren zelaian jokatzeko.

Tamalez, kontraeraso batean Ostadarren defentsak huts egin eta kanpoko taldeak aurre hartu zuten. Urdin beltzek ez zuten amore eman eta jarraian, berdinketa lortu zuten. Ostean, Ostadar nagusi izan zen eta atea aurrera iritsi zen behin eta berriro; hutsegite ugari ere izan zituen. Hala ere, beste bi gol egin zituen atsedendira iritsi baino lehen.

Bigarren zatia dinamika antzekoa izan zen. Ostadarrek goian jokatu zuten eta maiz izan zen Urnietaren ate aurrean. Aldaketak egitea ongi etorri zitzaion talde urdin beltzari eta aurkaria baino freskoago jokatu zuten. Aukeraz ongi baliatuz, aldea handitu zuten Ostadarrek eta 5-1eko ezarri zuten markagailuan. Urrutiko falta bati esker sartu zuten Urnietak



Ohorezko infantilen neurketa. TXINTXARRI

atezainaren gainetik bere bigarren gola.

Ikastea helburu

Jagoba Mendizabal prestatzailea pozarren dago taldeak hasierako neurketa horietan egindako lanarekin: "Denboraldia ondo hastea garrantzitsua zen eta bi partidak irabazi ditugu".

Multzo gogorra du talde urdin-beltzak eta kirol arloan, helburu finkorik ez dute jarri. Prestatzaileak aipatu duenez, "talde batzuk ezezagunak ditugu. Beraz, partidaz partida ikusiko beharko dugu nola moldatzen garen. Abendu hasieran sailkapenaren arabera ikusiko da. Kopa lehiatzea egokitzen bazaigu, garaipenaren bila joango gara".

Kategoria horretan ikasketa prozesuak duen garrantzia ere azpimarratu du Mendizabalek: "Taldek lehiatzea eta jokalariek ahalik eta gehien ikastea dugu buruan".

bertako -REKIN BAI!
igogailuak | ascensores

OROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari
- Baietz aurrezteari mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei



GIPUZKOA

943 903 450

BIZKAIA

946 523 935

ARABA

945 712 822

NAFARROA

848 870 917

www.bertako.eus

Lasarte-Oria Bai! krosa, herriko dendekin bat

Ostadar SKTk ez ditu trofeoak banatuko kros herrikoian; Aterpea merkataritza elkarteko saltokietan erosteko bonuak jasoko dituzte lehen sailkatuek. Herriko dendetan kontsumoa sustatu nahi du elkarteak. Izen ematea dagoeneko martxan da sarean

Txintxarri

Lasarte-Oria Bai! Kros herrikoia 25 urte beteko ditu aurten. Lasterketa hilaren 30ean jokatuko dute eta Ostadar SKTk pixkanaka kirol ekitaldiaren informazioa eskaintzen ari da: probaren izen ematea ireki du dagoeneko sarean eta 2019. urtean ekimenari jarraipena emanez, ez da trofeorik izango.

Lehen sailkatuek Aterpea merkataritza elkarteko establezimenduetan erosketak egiteko txartelak jasoko dituzte; sailkapenaren arabera 60-40 eta 20ko erosketa bonuak izango dira eta urtea bukatu aurretik trukatu beharko dituzte. Guztira 1.200 euro banatuko ditu herriko dendetan kontsumitzeko.

"Lasterketaren filosofiarekin bat egiten duen erabakia da, herriarekin eta herriarentzat. Krosa antolatzen dugu, bai, baina izugarri asebetetzen gaitu urriko azken igandean herrian sortzen den giroak, bertako taberna eta



Ostadar SKT eta Aterpea Merkataritza elkarteko kideak banatuko diren bonuak erakusten. OSTADAR SKT

jatetxeek egiten duten lanak... Gure hondar alea da, eta Aterpeko dendetan erosketak bideratzeko erabakia bide beretik doa", adierazi dute antolatzaileek.

Aterpeak ere begi onez hartu du erabakia eta esker oneko hitzak izan ditu antolatzaileentzat. "Eskerrak eman nahi dizkiogu Ostadar SKTri kirolaren festa handi hau antolatzeko egin duen ahaleginagatik eta ardurarengatik,

Lasarte-Oriara hainbeste jende erakartzeagatik eta udalerrian kontsumoa sustatzeagatik", adierazi dute.

Oraingoz sarean

Bestalde, martxan da lasterketaren izen ematea kirol taldearen webgunean; Manuel Lekuona Kultur Etxean, berriz, hilaren 19tik aurrera izango da aukera.

Zarautz Beltzak taldeak azken minutuan irabazi du neurketa

La Unicaren aurka hasi du denboraldia Euskal Ligako Ohorezko B mailako taldeak; 20-18 gailendu da

Txintxarri

Errugbiko baloia ere hasi da airean biraka; Euskal Ligako taldeak lehian ari dira.

Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT taldeko kideek Euskal Ligako Ohorezko B mailako lehen jardunaldia jokatu zuten, hilaren lehenean, Zarautzko Asti zelaian. Iruñeako La Unicaren aurka izan zen norgehiagoka eta gutxigatik erdietsi zuen garaipena etxeko taldeak, 20-18. Herriar ugari izan ziren zelaian jokoan, baita jokalariek animatzen ere.

Norgehiagoka borrokatua izan zen eta azken minutuetan zirrara handiko egoera bizi izan zen.

Hasieratik Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RTk aurre hartu zuen eta alde mantentzea lortu zuen.

Nafarrek aurre hartzeko ahalegin guztiak egin zituzten neurketa osoan zehar eta amaitzeko lau minutu falta zirela, lortu zuten saria. 17-18 jarri zuten markagailua.

Beltzek ez zuten amore emango, ordea. Aldeko zigor kolpe bat adierazi zuen epaileak eta Jokin Beloki herritarrak ez zuten hutsik

egin. Irabazteko behar zituzten bi puntuak lortu zituen.

Maila horretako lehiak gain, Emakumezkoen Ohorezko Mailako taldeak ere atera ziren berrira zelaira. Bi herritar aurrez aurre izango ziren gainera Gaztedi (Aizpea Racamonde) eta Hernaniren (Paola Vega) arteko partidari. Alabaina, ez zen neurketarik jokatu Hernani ez zelako hitzordura agertu.

Eskola

Bestalde, Beltzak Eskolako txikiak, 10 eta 12 urtez azpiko gazteek Hondarribiko hondartzan topaketa izan zuten. Euskadiko mailako eskola ezberdinetako taldeak izan ziren euren onena ematen. Batzuentzat lehen neurketak izan ziren; besteek, aurreko urteetako lagunekin topo egiteko aukera ezin hobea izan zen.



Ostadar Saskibaloia saileko jokalarien talde argazkia. TXINTXARRI

Ostadar Saskibaloia atala denboraldi berrirako prest

Talde urdin-beltzak maila ezberdinetan lehiatuko diren taldeak zein Saski Eskolako harrobia aurkeztu ditu

Txintxarri

Ostadar Saskibaloia ataleko kideek denboraldi hasierako aurkezpena egin zuten hilaren 1ean. Talde guztietako jokalariek zein Saski Eskolako gaztetxoak bildu ziren Maialen Chourraut kiroldegian.

Aurten talde urdin-beltzeko hamar talde izango dira kategoria ezberdinetan lehiatzen eta pixkanaka hasi dute 2022-2023 ikasturtea. Irailean Junior Errendimendu Zilar eta Kadete Errendimendu Zilar taldeek jokatu zituzten lehen neurketak. Hilaren 1ean, Infantil Errendimendu mailako bi taldeek izan zuten lehen jardunaldia eta hilaren 8an

eta 9an, gainerako taldeak aterako dira kantxara, mini izan ezik.

Emaitzak

Lehiaketei dagokionez, junior eta kadete taldeek garaipena erdietsi zuten. Juniorrek Erroibide Urbycolan 61-26 garaitu zuten; kadeteek, berriz, GSR Ointxe! aretxabaletarren aurkako neurketa 46-59 irabazi zuten.

Infantil Errendimendu mailan, berriz, Ostadar SKTko jokalariek ez zuten zortetik izan denboraldiako lehen partidari. Urre mailako taldeak 44-29 galdu zuten Ordizian eta Zillarrek kideek ezin izan zuten Zast Lynx gaititu, 44-36.

Intzako jubenil mailako bikoteek emaitza ezberdinak izan dituzte

Intzako Jubenil 2. mailako taldeak Tolosa gaitu du; Gazteleku 2 izan da garaile Jubenil 1. mailako lehian

Txintxarri

Intzako pilotariak Ezker Hormako Gipuzkoako txapelketan murgilduta daude. Hilaren 1ean, jardunaldi berria jokatu zen; nahiz eta herriko kideak bi partidetan ongi jardun, txanponaren bi aldeak bizi izan zituzten.

Jubenil 1. mailako bikoteak Gazteleku 2 izan zuten aurrez aurre Michelin kirol guneko pilotalekuan. Haritza Diaz de Gereñuk eta Peru Urdanpilletak partida luzea eta gogorrari aurre egin zioten. Andoaingo bikoteak ederki jokatu zuten eta ez zuten

akatsik egin. Ondorioz, 8-22 galdu zuten Intzako bikoteak.


Jose Felix Solano arduradunaren hitzetan, "emaitza hobe merezi zuten. Partida ona jokatu dute eta tanto gehiago egitea falta izan zaie".

2. mailan, berriz, Beñat Olazabal eta Pedro Elosegui 22-19 garaitu zuten. Partida berdindua izan arren, azken tantoetan Tolosako pilotariak baino ziurrago jokatu zuten herriko elkarteko kideek eta akatsik ez zuten egin. Horri esker, garaipena erdietsi zuten.

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Eneko
Betiko gaztaroaren elixirra ez dadila inoiz agortu. Zorionak!



Luka
Zorionak Luka! Zu bai artista, zu bai autentiko! Iritsi dira zure 3 urtetxoak!!! Betirako iraun dezala zure xarmak! Muxu goxo bana "guen" etheko guztien partez!

Urte askotarako!

Zorion izazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurrak.
- Zure erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzailerik ez baduzu izena eman.
- Bidali zure zorion agurra formularioa bete.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

Osteguneko 16:00ak arte jasoko ditugu zorion agurrak.

OHARRA

Katekesi saioen hasiera

Katekesiko 2022-2023 ikasturte berriko saioak urriak 8an, larunbatearekin, hasiko dira San Pedro parrokian.


Lehen hezkuntzako lehenengo mailan (6 urte) dauden haur eta familiak lehenengoz bilduko dira arduradunen eskutik, saioen nondik norakoak ezagutu eta izena emateko. Horretarako 10:30ean izango dute hitzordua.

LH2 mailako haur eta gurasoek 11:30ean izango dute saioa eta lehen jauntzea egingo duten LH3ko familiek, berri, 12:30an.


Parrokiko arduradunek gogoratzen dutenez, bederatzirtekin lehenengo Jauntzea hartu dezaten katekesiko beharrezkoak diren hiru urteak egin behar dira.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 7



Larunbata, 8




Igandea, 9




Astelehena, 10




Asteartea, 11



Asteazkena, 12



Osteguna, 13



TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943-37 16 29
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
KIROLDEGIA: 943-37 61 82
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
KIUB: 943-36 16 05
UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
MUNTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
DYA: 943-46 46 22
GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
UDALTZAINAK: 943-36 24 42
ERTZAINAZA: 943-53 88 40
SOS DEIAK: 112

SUDOKUA

	8	3					4	
				4	3	7	8	5
	4	5	8					
			4		1	6		3
				3		4	2	
4	3		9					
3			9		6		7	
			3		5	1		
8	9				4			



GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 7	DE MIGUEL	EGUNeko FARMAZIAK: 09:00-22:00
LARUNBATA, 8	DE ORUE	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
IGANDEA, 8	DE ORUE	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
ASTELEHENA, 10	ACHA-ORBEA	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTEARTEA, 11	GIL	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
AZTEAZKENA, 12	LASA	GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
OSTEGUNA, 13	URBISTONDO	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00
M. Gomez Bravo: Kale Nagusia 14, Hernani. 943-55 48 92

'URTE OSOKO GUARDIAK' APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen
Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA
ERRENTAN EMAN
Apartamentu bat dut Benidormen, eta alokatzeko eskaintzen dut irail eta urrian, hamabost egunez edo hilabete osoz. Harremanetarako zenbakia: 677 35 18 35 (Lourdes)

Errioxan, Alesancotik gertu, 60 metro karratudun apartamentua alokagai. 60 metro karratudun lorategia du, bista paregabeak, baita igerileku komunitarioa ere. Irailera arte alokagai, hamabostaldika. Nahi izanez gero argazkiak bidaltzeko prest. Harremanetarako zenbakia: 666 88 0917.

PARTEKATU
Neska langile bat naiz eta etxebizitza osatzeko beste bi neska arduratsu eta garbiren bila nabil. Etxea argitsua, handia da eta gela guztiek kanpo aldera ematen dute. Herri erdian dago, topo eta autobus geltokitik oso gertu. Harremanetarako zenbakia: 666 32 05 20.

ITANA
ESKAINITZA
Unibertsitateko ikasketak egiten ari den edota amaitu dituen pertsona behar dugu, DBHko 3. mailako ikasle bati eskola partikularrak emateko. Astean hiru egunetan beharko genituzke eskolak eta azterketa garaian eskola extrak. Interesatuak honako telefono zenbakira deizakete: 630 73 29 49.
15 urteko neska bati euskara klase partikularrak emateko pertsona bat behar da.

Harremanetarako zenbakia: 631 57 15 40 (Arratsaldez deitu).

8 urteko neska bat ikastolara eramateko pertsona bat behar da. **Ikasturte osoa.** Harremanetarako zenbakia: 607 35 87 15 (WhatsApp)

ESKARIA
Kurtsoan zehar haurrak arratsalde zaintzeko prest. Esperientzia dut. Harremanetarako zenbakia: 695 18 41 79.
Adineko pertsonak zaintzeko prest nago.

Esperientzia dut eta baita paperak ere. Harremanetarako zenbakia: 627 20 61 10.

Umeak zainduko nituzke. Harremanetarako zenbakia: 695 18 41 79.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketan. Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.

SALEROSKETA
SALDU

Su egurra saltzen da (haritza), tximinirako, ekonomokarako... Harremanetarako zenbakia: 667 23 23 00 eta 616 83 09 02.

BESTELAKOAK
HEZKUNTZA
Unibertsitateko ikaslea errefortzu klaseak emateko zein haurrak zaintzeko prest dagoena, goizez nahiz arratsaldez. Harremanetarako zenbakia: 688 65 56 93.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646 82 44 66

ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943-37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan **943-37 14 48**

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzzaileak:
Lide Hidalgo, Uxue Odriozola, Julene Iraola, Egoitz Epelde, Endika Meriban, Gorka Morales, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA
Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.500 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 7

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Semblante Andaluz elkarteak XIX. Aste Kulturalari hasiera emango dio, eta horretarako, hauek dira iragarri dituen jarduerak:

- 18:00etan**, aste kulturalaren hasiera; ongietorria eta agurrak.
- 20:00etan**, ohorezko ardoa agintari eta gonbidatuentzat.
- 20:30ean**, Louh musika talde lasarteoriatarren emanaldia.
- 21:30ean**, musika eta herri dantza. Okendo plaza, 18:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Adinekoen Omenaldi Astea

Adinekoen Omenaldi Astea ospatzeko, Duo Imperial taldearen kontzertua iragarri dute.

Manuel Lekuona, 19:00etan.

LARUNBATA 8

LASARTE-ORIA Adinekoen Omenaldi Astea

Adinekoen Omenaldi Astea ospatzeko, urrezko ezteiak ospatuko dituzte. Meza egingo dute Brigitarren komentuan 11:00etan. Ondoren, oparien banaketa egingo dute, eta bazkaria ostean. Brigitarren komentua, 11:00etan.

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Semblante Andaluz elkarteak XIX. Aste Kulturala ospatuko du. Hauek dira iragarri dituen jarduerak:

- 11:00etan**, karparen irekiera.
- 12:00etan**, helduentzako bote eta toka txapelketa.
- 17:00etan**, betiko jolasak, aurpegi margoketa eta haurrentzako tailerrak. Gaztetxoentzat bote eta toka txapelketa ere izango da.
- 19:00etan**, Tabita y son flamenco taldearen emanaldia. Okendo plaza, 11:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Emanaldia

Itoizezank taldeak emanaldia eskainiko du. Sigrid erreginaren bila, Itoiz talde entzutetsuaren unibertsoan barrena hegaraziko dituzte ikus-entzuleak. Jalgi Kafe Antzokia, 20:00etan.

IGANDEA 9

LASARTE-ORIA Adinekoen Omenaldi Astea

Adinekoen Omenaldi Astea ospatzeko



LASARTE-ORIA Erakusketa. Loli Lameiras lasarteoriatarren erakusketa ikus daiteke Mercero gunean. Paisaia eta loreak marrazten ditu olio klasikoa erabiliz, baina bestelako margo eta teknikak ere erabiltzen ditu bere lanak sortzeko. Hilaren 9ra arte egongo da ikusgai.

Mercero gunea, goizez, astelehenetik ostiralera, 11:00etatik 14:00etara eta arratsalde, astelehenetik larunbatera, 17:30etik, 20:00etara.

hainbat jarduera deitu dituzte:

- 11:30ean**, meza, Zumaburu parrokiaren.
- 12:25ean**, trikitilariak, elizatik kultur etxera.
- 13:15etik 13:45era**, Biyak Bat koruaren emanaldia, kultur etxean.
- 14:00etatik 18:30era**, bazkaria eta dantzaldia Ibai Berriak musika taldearekin, Michelin kirol gunean. Herriko leku ezberdinetan, 11:30etik aurrera.

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Semblante Andaluz elkarteak XIX. Aste Kulturala ospatuko du. Hauek dira iragarri dituen jarduerak:

- 11:00etan**, karparen irekiera.
- 12:00etan**, Evolución de Lasarte-Oria hitzaldia. Honako hauek izango dira hizlariak: Julian Sagardia, Jesus Mari Egizabal eta Txema Valles.
- 13:30ean**, Semblante Andaluzeko Duende taldearen emanaldia.
- 14:30ean**, paella jan herrikoia (txartelak aurrez erosi behar dira).
- 17:30ean**, Rumba flamenka masterclass-a Amaya Gonzalez Caballeroren eskutik.
- 19:00etan**, musika eta herri dantza. Okendo plaza, 11:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Zinema

Ikasturte berriarekin batera hasiko

dira haurrentzako zinema saioak. Oraingoan, *Tadeo Jones y la tabla Esmeralda* filma proiektatuko dute. Sarrerak kultur etxeko leihatilan eros daitezke, 4 euroren truke. Manuel Lekuona, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Ikasturte berriarekin batera hasiko dira helduentzako zinema saioak. Oraingoan, *Buena suerte*, *Leo Grande* filma proiektatuko dute. Sarrerak kultur etxeko leihatilan eros daitezke, 6 euroren truke.

Manuel Lekuona, 19:30ean.

ASTEARTEA 11

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Semblante Andaluz elkarteak XIX. Aste Kulturala ospatuko du. Hauek dira iragarri dituen jarduerak:

- 18:00etan**, karparen irekiera.
- 19:00etan**, musika eta herri giroa.
- 22:00etan**, Aurelio Gallardo musikariaren emanaldia. Okendo plaza, 18:00etatik aurrera.

ASTEAZKENA 12

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Semblante Andaluz elkarteak XIX. Aste Kulturala ospatuko du. Hauek dira iragarri dituen jarduerak:

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

'Tadeo Jones y la tabla Esmeralda'
Igandea 9: 17:00.

'Buena suerte, Leo grande'
Igandea 9: 19:30.

USURBIL

URBIL

'Avatar'
Ostirala 7: 17:45, 20:35, 21:20.

Larunbata 8: 17:45, 20:35, 21:20.

Igandea 9: 17:45, 20:35, 21:20.

'El vasco'

Ostirala 7: 16:25, 19:00, 21:35.

Larunbata 8: 16:25, 19:00, 21:35.

Igandea 9: 16:25, 19:00, 21:35.

'En los márgenes'
Ostirala 7: 15:50, 19:25, 22:00.

Larunbata 8: 15:50, 19:25, 22:00.

Igandea 9: 15:50, 19:25, 22:00.

'La chica salvaje'
Ostirala 7: 17:00.

Larunbata 8: 17:00.

Igandea 9: 17:00.

'La vida padre'
Ostirala 7: 19:55.

Larunbata 8: 19:55.

Igandea 9: 19:55.

'Los renglones torcidos de Dios'
Ostirala 7: 16:10, 18:30.

Larunbata 8: 16:10, 18:30, 21:55.

Igandea 9: 16:10, 18:30, 21:55.

'Modelo 77'
Ostirala 7: 22:20.

Larunbata 8: 22:20.

Igandea 9: 22:20.

'No te preocupes querida'
Ostirala 7: 22:10.

Larunbata 8: 22:10.

Igandea 9: 22:10.

'Operación bebé oso'

Ostirala 7: 17:05.

Larunbata 8: 17:05.

Igandea 9: 17:05.

'Smile'
Ostirala 7: 16:55,

19:45, 22:30.

Larunbata 8: 16:55, 19:45,

22:30.

Igandea 9: 16:55,

19:45, 22:30.

'Tadeo Jones 3. La tabla esmeralda'

Ostirala 7: 15:55,

18:15.

Larunbata 8: 15:55, 18:15.

Igandea 9: 15:55,

18:15.

11:00etan, karparen irekiera.

12:30ean, Semblante Andaluzeko Duende taldearen emanaldia.

14:00etan, bote eta toka txapelketa sari banaketa.

17:30ean, Gipsy dance masterclass-a Lourdes Motiñoren eskutik.

19:00etan, Semblante Andaluzeko Semblante Rociero koruaren emanaldia. Duende dantza taldeak ere bertan parte hartuko du.

20:00etan, erifen zozketa. (Karpako barran izango dituzte salgai).

20:30ean, XIX. Aste Kulturalaren amaiera.

Okendo plaza, 11:00etatik aurrera.

OSTEGUNA 13

LASARTE-ORIA Zinema

Ikasturte berriarekin batera hasiko dira Okendo Zinema Taldearen zinema saioak. Oraingoan, *Cinco lobitos* filma proiektatuko dute. Sarrerak kultur etxeko leihatilan eros daitezke, 6 euroren truke.

Manuel Lekuona, 22:00etan.

OSTIRALA 14

LASARTE-ORIA Dantza

XVIII. Dantza Zirkuituaren barruan, Nerea Martinezen *Abrazo* lana ikusteko aukera izango dute ikus-entzuleek. Sarrerak 6 euro balio dute.

Manuel Lekuona, 20:00etan.

IGANDEA 16

LASARTE-ORIA Zinema

Ikasturte berriarekin batera hasiko dira haurrentzako zinema saioak. Oraingoan, *Nire zirkua* filma

proiektatuko dute. Sarrerak kultur etxeko leihatilan eros daitezke, 4 euroren truke.

Manuel Lekuona, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Ikasturte berriarekin batera hasiko dira helduentzako zinema saioak. Oraingoan, *La vida padre* filma proiektatuko dute. Sarrerak kultur etxeko leihatilan eros daitezke, 6 euroren truke.

Manuel Lekuona, 19:30ean.

ASTEAZKENA 19

LASARTE-ORIA Opera

Opera zikloaren barruan, Mozart musikari entzutetsuaren *La flauta mágica* lanaren bertsio digitala proiektatuko dute. Sarrerak 7.5 euro balio dute alde zurretik, eta 9, berriz, egunean bertan erositara. Manuel Lekuona, 17:00etan.

LARUNBATA 22

LASARTE-ORIA Euskararen jai

Ttaku Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak elkarlanean antolatzen duten Euskararen 10. Maratoiak hartuko du herria.

Okendo plaza, 08:00etatik aurrera.

IGANDEA 23

LASARTE-ORIA Euskararen jai

Ttaku Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak elkarlanean antolatzen duten Euskararen 10. Maratoiak hartuko du herria.

Okendo plaza, 08:00etatik aurrera.

